

FUTBOLA

Realak ez zuen hutsegin Atotxan

promozio postuen arriskupean

Athleticek UEFari agur esan dion bitartean Osasuna gero eta hurbilago

Hiru euskal taldeek emaitza desberdinak lortu zituzten, Real Madrid, Oviedo eta Atletico de Madriden aurkako partiduetan. Realak oso beharrezkoak zituen bi puntuak eskuratu zituen Atotxan, atzekaldeko hutsek zuten eta Osasunak UEFarako sailkatzeko oso garrantzitsua den puntua lortu zuen.

RAMON BASALDUA / BILBO

Aurtengo liga txapelketa erabakita dago, Realak Atletico de Madridaren kontra lortutako garaipenak lehen postua ziurtatu bait dio Barcelonari. Gainontzeko postuei dago-kienez, gauzak ez daude batere argi ez UEFA postuetan ezta jaitzierara-ko postuetan. Real Madrid, Osasuna eta Gijoneko Sporting, UEFAn sartuko dira ziurrenik eta Sevilla, Oviedo eta Valenciak postu bakar bat lortzeko borrokatu beharko dute.

Pedro Mari Zabalzak entrenatzen duen Osasunak aspalditik duen hirugarren postua defendatzen jarraitzen du eta aurrerapausu garrantzitsua eman zuen, Europara begira, Carlos Tartiere zelaian puntu bat urratu bait zuen Jabo Iruetak entrenatzen duen Oviedoren kontra. As-turien, arazoak izaten dituzte sendo egituratuta dagoen atzekalde baten aurrean. Osasunak ondo baino hobeto daki bere atea zaintzen eta Oviedo-koek ahalegin ugari egin zituzten arren ez ziren arriskua sortzeko gai



Urbanek lan ona egin zuen Oviedon txartel gorria ikusi arte.

JOXE

izan. Lau partidu besterik ez dira falta liga amaitzeko eta Osasunak etxeko puntuak lortzearekin, UEFA ziurtatuko luke.

OPARI LARREGI BERNABEUN

Badirudi Real Madridek opari pila hartzen duela denboraldian zehar. Athletic taldeko atzelari eta atezainak, Tenerife eta Valladolideko partiduetako arbitroek merengeei emandako opariak errepikatu nahi izan zituzten eta lortu ere lortu zuten. Iru ez zen oso fin ibili lehen golean eta gainontzekoetan ere, atze-

lari zurigorriek ez zuten azken partiduetako ziurtasunik mantendu.

Iñaki Saezek ezin izan dio berak taldea hartu zuenetik ezarritako markari eutsi eta horren ondorioz agur esan dio Athleticek UEFA txapelketari. Zurigorriak ez ziren gaizki aritu Bernabeun, baina lehen esandako hutsek, goitik-behera aldatu zuten partidua.


OKERTUTAKOA ZUZENDU ATOTXAN

Laster amaituko den aurtengo liga txapelketa inoiz baino arraroagoa izan da, parekota-

sun handia egon bait da taldeen artean. Hori dela eta partidu batzuk jarraian galtzen dituen talde batek zailtasunak izan ditzake maila mantentzeko. Horixe bera gertatu zaio Xabier Expositok entrenatzen duen Realari.

Mallorca eta Zaragozak gorantz egin dute eta promozio postuak ez zeuden urrun txuriurdinentzat. Atletico de Madriden kontrako partidua irabaztea ezinbestekoa zuen Realak, kontutan izanik gainera, datorren ihardunaldian Nou Campen arituko direla Barcelonaren kontra.

ASTEKO SELEKZIOA



Parentesi artean, jokalaria bakoitzak geure selekzioan izan dituen agerraldiak, gaurkoa barne.

I. MARTIARENA

OSASUNA da euskal taldeen artean UEFARA sailkatzeko aukerak dituen bakarra, eta igandean Oviedon punturen bat eskuratzeko egindako ahaleginei esker, gorritxoek osatzen dute geure selekzioaren ardatza. Roberto atean, Pepin, Castañeda eta Txomin Larrainzar atzekaldean, Bustingorri zelai

erdian eta Urban erasoan, Zabalzaren sei gizon ditugu hamaikakoan. Atzekaldea osatzeko Realeko Lunbreras eta Athleticeko Alkorta aukeratu ditugu, eta zelai erdirako Urija eta Garitano, biak ezkertak izan arren. Aurrekaldean John Aldridge, Ligako goleatzailerik onena, poloniarren alboan. Eta aulkian Exposito, Realak bigarren zatian izan zuen



GAIZKA ARANGUREN

Liga ez da amaitu...baina ia

Barcelona txapeldun. Zorionak. Garestia liga ezta? Merez du?

Bejondeiela.

Gero eta zalanza gutxiago dago gerta daitekenaren inguruan (UEFAz ari naiz); hala ere, sailkapeneko hirugarren lekutik zazpigarrenera, lehiaketa labur eta interesgarri bat ikus dezakegu.

Norgehingoka honetan euskal talde bat izanen dugu murgilduta. Bere historia guztian burututako denboraldirik onena egin duen Osasunak 40 puntu eta 6 positibo du atzodanik. Real Madrid eta Sporting-ek puntu bakar batera jarraitzen dioten arren, Iruñearrek ez dute urduritasunik nabari behar; lehenengo eta behin datorren igandean Madrildarren aurkako partiduan, 0-4aren ametsa Sadarreko airean arnastu ahal izanen delako, eta bigarrenetoz talde horien atzetik amaitzeak ez lukelako inolako amorrurik sortu behar. Helburu nagusia eskura izanik, gainbehera sinesgaitz batek soilik ekidin dezake Europarako txartela. Azterketa honetatik abiatuz eta orrialde honetan bertan egindako beste komentarioen jarraikiz, erre egon beharko du zalegoak euskal komunikabide batzuk Europa mailako euskal ordezkari bakarrari egiten dioten jaramonaz. Ni, ikusentzunezko komunikabide euskaldunek Osasunaren partidu europarrak zuzena eskeiniko ez dizkigutenaren beldur naiz.

Sailkapena

- 12 Eugenio Bustingorri
- Ander Garitano
- 11 Roberto
- 10 Agustin Gajate
- 9 Juan Antonio Larrañaga
- 8 Xabier Eskurza
- 7 Martin Gonzalez
- Patxi Ripodas
- Mikel Lasa
- John Aldridge
- 6 Dalian Atkinson
- Iñigo Larrainzar
- Kuko Ziganda
- Genar Andrinua
- Rafa Alkorta
- Javier Castañeda
- 5 Iñaki Ibañez
- Carlos Martinez
- Entrenatzaileak**
- 8 Pedro Mari Zabalza
- 6 Iñaki Saez
- 3 Javier Exposito



Tfnoa.: 22 71 25
San Francisco, 19
San Anton, 56
IRUÑEA